

# BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 1369

*EBAZPENA, 2025eko martxoaren 5ekoa, Deskarbonizazio zuzendariarena. Honen bidez, Iruña Oka udalerrian «Proyecto Ejecutivo de Instalación Fotovoltaica "Arganzón" e infraestructuras de evacuación en el término municipal de Iruña de Oca (Álava)» proiektuari dagokion instalazioa egiteko.*

Espediente zk.: 01GEY 202200006.

### AURREKARIAK

2022ko ekainaren 15ean, Fotovoltaica Comución II SL enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeke administrazio-baimena eskatu zituen, Iruña Oka udalerrian «Proyecto Ejecutivo de Instalación Fotovoltaica "Arganzón" e infraestructuras de evacuación en el Término Municipal de Iruña de Oca (Álava)» proiektuari dagokion instalazioa egiteko.

Proiektuaren xede den instalazioak sarbide- eta konexio-baimena du, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresa banatzaileak emana 2024ko urriaren 23an.

Proiektua jendaurrean jartzeko iragarkia 2024ko urriaren 22an eta 2024ko azaroaren 8an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, hurrenez hurren. Era berean, organismo hauei dagozkien separatak bidali zitzaizkien: Iruña Okako Udala, Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Nekazaritza Saila, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, REE Red Eléctrica de España, Montevite eta Ollabarreko administrazio-batzarrak eta URA-Uraren Euskal Agentzia. Aipatutako organismoetatik, Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza eta Nekazaritza Sailaren, REEren, Iruña Okako Udalaren eta URAREN txostenak jaso ziren.

Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritzak proiektuarekiko adostasuna aurkeztu zuen; REEek informazio gehiago eskatu zuen, eta Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta Iruña Okako Udalak, berriz, proiektua baimentzeko baldintza teknikoak aurkeztu zituzten. URAk, bestalde, informazio gehiago eskatu zuen ebakuazio-linea jabari publiko hidraulikoko eremuarekin elkartzen den bidegurutzeari buruz.

Sustatzaileak URARI erantzun zion, eta URAk baldintza teknikoen txostena egin zuen.

Sustatzaileak ordezkaritza honetan aurkeztu zuen jasotako txosten guztien onarpena.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, bat etorritik Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoarekin.

2.– Abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuak, lehenengo xedapen gehigarrian, ordezkapenen araubidea erregulatzen du, eta honako hau dio: «Dekretu honek aipatutako organoen titularrak ez badaude edo gaixorik badaude, edo karguak hutsik badaude, edo abstenitzeko edo errefusatzeko

adierazpena egin bada, sailburuak berariazko ebazpenik eman ezean, titularrok ordezkatzeko arau hauek beteko dira: (...) e) Organo periferikoetako titularren ordezkoa haien gainetik dagoen zuzendaria izango da».

Beraz, ebazpen hau eman den egunean hutsik dagoenez Arabako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkararen lanpostua, Deskarbonizazio zuzendariari dagokio haren ordezkoa izatea.

3.– Espediente hau izapidetzeko orduan, Energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak ezarritako xedapenak bete dira.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Deskarbonizazio zuzendariak

#### EBAZTEN DU:

1.– Fotovoltaica Comución II SLri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzekeko administrazio-baimena ematea Iruña Oka udalerrian «Proyecto Ejecutivo de Instalación Fotovoltaica "Arganzón" e infraestructuras de evacuación en el Término Municipal de Iruña de Oca (Álava)» proiektuari dagokion instalazioa egiteko.

2,9 MW-eko potentzia nominaleko instalazio fotovoltaikoa, Iruña Okan kokatua, Iruña Okako 1. poligonoaren 263A, 263B eta 264 partzeletan. Ezaugarriak:

- 0,725 kWp-ko 4.788 modulu fotovoltaiko.
- 322,22 kW-eko 9 inbertsore.
- 3200 kVAko transformazio-zentro prefabrikatu bat.
- Gutxi gorabehera 820 m-ko lurpeko ebakuazio-linea konexio-punturaino.
- Ebakuazioa SET Jundizeko 1110-2661311 euskarrian egingo da (30 kV).

Ebazpen hau baldintza orokor hauekin ematen da:

– Onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira obrak, kasuan-kasuan eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

– Martxan jartzeko epea bi urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ez bada instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

– Instalazioen titularrak, proiektua gauzatu ondoren, eta arauzko egiaztapenak egin ondoren, obrak amaitu direla jakinaraziko dio Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako Lurralde Ordezkaritzari, ustiatzeko eta martxan jartzeko baimena eman diezaion. Horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko du.

– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal- eta probintzia-eskumenerako eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe ematen da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

2025eko martxoaren 27a, osteguna

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioko Trantsizio Energetikoko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 5a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Arabako lurralde-ordezkarria ez dagoenez, eta bat eginez Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren e) apartatuan ezarritakoarekin.

Deskarbonizazio zuzendaria,  
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.